


Banaturuz eraldatu!



AZKEN BERRIAK

HEZIKETA BEREZIA
2025/06/30

ORDEZKOEN IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA (COCU)

Hezkuntza Sailak gaur argitaratu du ordezkoen ikasturte hasierako esleipenen ebazpena.

Honekin batera prozesuaren gida, lan egoerari buruzko informazioa (hezigunean), lan egoera, lurralde historikoa, lanaldia eta destinoa (partzialak) aldatzeko ebazpena eta gida argitaratu dituzte.

Lanpostuen behin-behineko zerrenda ere bertan dago.

Informazio guztia [Hezkuntza](#) saileko web orrian aurkituko duzu.

Lan-egoera [hezigunea](#)ren bidez aldatu behar da eta epea uztailaren 7ra arte luzatuko da.

Lurraldea, destinoa eta lanaldi mota [hezigunea](#)ren bidez aldatu behar da eta epea uztailaren 2tik 3ra izango da.

Prozesuaren inguruko zalantzak argitzeko hiru telefono zenbaki gaitu dituzte:

945 018 270

945 018 429

945 018 397

Aplikazio telematikoan arazoak izanez gero hezigunea@hezkuntza.net idatzi behar da.

Honekin batera ikasturte hasierako esleipenaren (COCU) egutegia bidaltzen dizuegu.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin [harremanetan](#).

ARABA: 648735679 Saioa
heziketabereziaaraba@lab.eus

GIPUZKOA: 666775703 Kattalin
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus
673462639 Aiora
heziketabereziagipuzkoa1@lab.eus

BIZKAIA: 666778152 Alazne
heziketaberezia@lab.eus
666771867 Maite
heziketabereziabizkaia@lab.eus

LAB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA